


Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreko jarduera % 14,8 hazi da 2021eko bigarren hiruhilekoan

Etxegintzaren azpisektorea % 16,0 igo da, eta Obra Zibilarena % 7,1

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren jarduerak % 14,8ko urte arteko hazkundea izan du 2021eko bigarren hiruhilekoan, balio nominaletan, dagozkion egutegi-ondorioak atera ondoren.

Hiruhileko horretan, Eraikuntzaren sektoreak izan duen urte arteko hazkundea, oroz gain, *Etxegintzaren* jokamoldeak eragin du, % 16,0ko igoera izan baitu; izan ere, *Obra Zibilak* urte arteko igoera neurritsuagoa izan du, % 7,1koa.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte- arteko aldakuntza-tasa (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Aurten, 2021eko lehen seiuhilekoan, sektoreak % 6,3ko igoera izan du bere jardueran, 2020ko aldi berarekin alderatuta. Urte honetako urte arteko aldakuntza-tasa metatua % 6,9koa da *Etxegintzaren* azpisektorean eta % 2,1koa *Obra Zibilarenean*.

2021eko bigarren hiruhileko horretako sektoreko jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, behin urtaroen eragina zuzendurik, % 1,0ko jaitsiera ikusten da. *Etxegintzak* hiruhileko arteko bilakaera negatiboa izan du, % 0,9koa, eta *Obra Zibilak* % 1,8 egin du behera aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azkenik, urtaro-eraginik gabeko terminoetan, Eraikuntzaren sektoreko langile enplegatuak % 1,1 igo dira 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Eraikuntzaren koikuturaren Indizea. Euskal AE. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak. II/2021

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	II 2021/II 2020	At/At-1	II 2021/I 2021	I 2021/IV 2020
Produkzioaren Indizea	14,8	6,3	-1,0	2,7
Eraikuntza	16,0	6,9	-0,9	2,9
Obra zibila	7,1	2,1	-1,8	1,2
Landunen Indizeak	-	-	1,1	0,4

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koikuturako Indizea

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koikutural honetan eta beste indize ekonomiko koikutural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuaren artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaian duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

2021eko bigarren hiruhilekoko EKIren estaldura % **84,9koa** izan da. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62